

Asteazken honetan, Zirika! herrigunean 19:30ean, Bety Cariño gogoan izango dugu. 2010eko apirilaren 27an erahila izan zen Oaxacan (Mexiko).

Bere bizitza osoa, Mexikoko jatorrizko herrien aldeko justizia eta duintasunaren aldeko borrokan jarri zuen eta ideia horiek defendatuz hil egin zen.

Aste honetan, bere ahizpa den Carmen Cariño etorriko zaigu Betyren bizitza eta borrokaren inguruan argitaratutako komikiaren aurkeztera. Aldi berean feminismoa, Mexikoko emakume indigenak, eta Lurraren aldeko borrokak izango ditugu hizpide.